



Arartekoaren 2014IR-2147-13 ebazpena, 2014ko martxoaren 27koa. Horren bidez, Zizurkilen hondakinak biltzeko atez atekoa deritzon sistema ezartzeari buruzko jarduketa bukatutzat eman da.

Aurrekariak

1. Tolosaldea Txukun Plataformak (hemendik aurrera plataforma) kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, Zizurkilgo Udalak hiriko hondakinak biltzeko ezarritako sistemari buruzkoa.

Zehazki, kexan aipatzen da udalak zaborrak biltzeko bere sistema eredia inposatu duela eta herri partaidetzarako eskubidea ukatu diela auzokideei. Gainera, udalak hondakinak biltzeko “atez atekoa” deritzon sistema ezartzean hainbat arau hautsi duela ere argudiatzen dute.

Herritarren partaidetzari buruzko lehen gaia dela-eta, plataformak partaidetza zabalarekin burutu izan dituen hainbat jarduketari buruzko gertaeren azalpen kronologikoa egin dute, hala nola: sinadura bilketa, manifestazio jendetsuak, galdeketa egiteko eskaera egitea udalari plataformak deitutako herri galdeketa erantzunik eman ez izanagatik, etab. Azken finean, uste dute udalak ez duela aintzat hartu herritar gehienen borondatea, eta herritarrei parte hartzeko eskubidea galarazi die haien eskumeneko udal eremuko erabaki publikoak hartzean.

Arau-hausteei dagokienez, honako hauek aipatu dituzte:

- “Atez atekoa” ezartzeko udal erabakirik eza. 2012ko otsailaren 27an onetsitako mozioa, haien ustez, ez da zerbitzua ezartzeko erabakiaren baliokidea, asmo-deklarazioa baizik.
 - 300 lagunek baino gehiagok ekainaren 5 eta 22 bitartean aurkezturiko idazkiei erantzunik eman ez izatea; bilketa sistemari buruzko erabakia osoko bilkurari dagokiola aipatzen da.
 - Fatxadetan esekigailuak jartzea eraginpeko jabeen baimena izan gabe eta prozedurarik jarraitu gabe.
 - Atez ateko sistemari egokituriko zaborren ordenantzarik eza. Indarreko ordenantza ez da aldatu eta sistema berriak ez du behar bezalako araudirik.
2. Erreklamazioan azaldutakoak baloratu ondoren, kexari buruzko informazioa eskatu genion Zizurkilgo Udalari, baita balorazioa egiteko egoki iritzitako agiriak aurkez zitzala ere.

Zehazki, argibide eta agiri hauek eskatu genizkion udalari:





- Herritarren partaidetzari buruzko balorazioa eta herritar gehienek iritzia kontuan hartu ez izanari buruzko kexa.
- Atez ateko sistema ezartzeko organo eskudunari buruzko balorazio juridikoa.
- Fatxadetan esekigailuak jartzea legitimatzeko hirigintza araua (hirigintza arauak argitaratu zireneko GAOren data eta zk.).
- Fatxadetan esekigailuak jartzeko baimena edo herritarren beste edozein izapide eskatu behar ez izateari buruzko balorazioa.
- Zaborrak biltzeko zerbitzuaren indarreko ordenantza arau-emailea aldatu behar ez izateari buruzko balorazioa.

Zizurkilgo Udalak, errekerimendua eta ohartarazpena jaso ondoren, egin zenion informazio-eskaerari erantzun zion. Horren arabera, plataformaren herriko ordezkaria den zinegotziaren esku jarri zuen Tolosaldeako Mankomunitateak hiriko hondakinak biltzeko ezarritako sistemari buruz eskaturiko informazio guztia.

Zaborrak biltzeko sisteman oinarrituriko ordenantza, adierazi zaigunez, honako hau da: "Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan etxe eta merkataritza hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantza Orokorra", hemendik aurrera ordenantza (GAO, 2013ko abuztuaren 26ko 161 zk.).

Informazio hori plataforma erreklamaziogilearen ordezkariarekin erkatuta, udalak kexan planteatzen ziren galdera zehatzei erantzunik eman ez diela adierazi zaigu, hain zuzen ere gure informazio-eskaera helarazi genizkion galderei.

Azaldutako aurrekarien eta emandako dokumentazioaren arabera, erakunde honek kexa-espedita honetan atera dituen ondorioak helaraziko dizkizugu:

Gogoetak

1. Plataformak planteatu dituen arau-hausteak baloratuko ditugu lehenik eta behin, baina esan behar dago nahiago gukeela beharbada erkatzea erreklamaziogileek kexan egiten duten planteamendua eta Zizurkilgo Udalaren posizioa. Aurrekarietan ikus daitekeenez, ez dago erkatze hori egiterik, zeren udalak ez baitu nahikoa argibide eman, udalari eginiko gure informazio-eskaeran behar bezala zehazteko eskatzen genituen alderdien ingurukoak.

Horren arabera, plataformak dio, lehen eta behin, hondakinak biltzeko indarreko sistema aldatzeko eta "atez atekoa" deritzon sistema ezartzeko udal erabakia falta dela. Haren ustez, osoko bilkurari dagokio erabaki hori, tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen maiatzaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) artikuluan



ezarritakoarekin bat etorriz. 2012ko otsailaren 27an onetsitako mozioa, haien ustez, ez da zerbitzua ezartzeko erabakiaren baliokidea, asmo-deklarazioa baizik.

Zizurkilgo Udalaren osoko bilkurak 2012ko otsailaren 27an onetsitako "mozioak" udalerrian hondakinak biltzeko atez atekoa izeneko sistema ezartzeko gehiengoaren borondatea azaltzen zuen (6 boto alde eta 2 kontra). Ikuspegi formaletik, osoko bilkuraren irizpenpean zuzenean jartzen den proposamena da mozioa, premiaz, eta ez dago gai-zerrendan sartuta eta ez da informazio batzordearen irizpenik izan (Tokiko Erakundearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Arautegiko 97.2. artikulua – azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua - AFA).

Kasu honetan, dirudienez gai-zerrendan sartuta zegoen gaia eta, beraz, proposamena izango litzateke teknikoki (AFAREN 97.2. artikulua), hots, informazio batzordearen irizpena jaso ez duen gaia da, eta aurretik gai-zerrendan sartzen dela berretsi behar da eztabaidatua izateko. Hala ere, bi proposamen mota horiek antzeko izapidea dute; izan ere, aurretik berretsi egin behar dira eta hainbat kasu dakartzate, non, zioa edozein dela ere, informazio batzordean ez den irizpenik eman.

Hori guztia alde batera utzita, ohikoa da udalek "mozio politiko sozialak" deritzenak izapidetzea, oro har, udalean ordezkariak duen talde batek proposatuta, eta osoko bilkurak irizpena eman dezala eskatzen da, berez udalaren eskumeneko gaiak ez badira ere. Hori dela-eta, askotan erabaki horiek "asmo-deklarazioak" dira, eta udal taldeek zuzenean ematen dute iritzia osoko bilkuran.

Udalek hiriko hondakin solidoak kudeatzeko eskumena dute (tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen legearen 25. 2b) artikulua) eta, beraz, premiaz hartuko zukeen erabakia osoko bilkurak, aurretik informazio batzordeak aztertu eta irizpena eman gabe, salbuespenezko izapidea erabiliz gaia premiazkoa dela iritzita. Alabaina, kudeaketa konpartituko formulak aplikatuz, kasu honetako zerbitzua ematea Tolosaldeko Mankomunitatearen eskumena da; Zizurkilgo Udala Mankomunitatearen barruan dago. Gero egingo ditugun zehaztapenei kalterik egin gabe, eskura dugun informazioarekin ondoriozta daiteke hartutako erabakia asmo-deklarazioa dela, zeren eta zerbitzua emateko eskumena erakunde mankomunatu bati emandako eskumena baita, eta erakunde horrek bere nortasun juridikoa du eta erabakiak hartzeko bere organoak dauzka.

Nahiz eta kexan udalaren jarduketa aipatu eta ez mankomunitatearena - mankomunitateak ez du izan bere iritzia azaltzeko aukerarik, gaia ez delako erakunde horretan aurkeztu-, zerbitzua ezartzeari buruz udalak aintzatetsitakoarekin zerikusia duten alderdiak baino ez ditugu aipatuko gure azterketan.



Zerbitzuari buruzko ordenantza arau-emaiaren 1. artikuluan aipatzen denez, ordenantzaren xedea da Mankomunitatea osatzen duten udaletan sortzen diren etxeko eta merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak biltzeko zerbitzuak Tolosaldeko Mankomunitateak zein baldintzatan emango dituen eta erabiltzaileak nola erabiliko dituen arautzea. Nahitaez erabili eta jaso beharreko zerbitzua da.

Zerbitzua ezartzeko aurreikusitako prozedura zehaztearen ondorioetarako, ordenantzaren 13. artikuluan zehaztu da mankomunitateak hondakinen gaikako bilketa ezarriko duela, edozein modalitatetako: edukiontziak edo atez ateko bilketarako ontziak edo poltsak emateko ontziak edo euskarriak. Gaika eman beharko dira hondakinak, zatiketa bakoitzerako ezarritako zehaztapenen arabera (papera, organikoa, hondarrak, etab.), baina Mankomunitateko udal bakoitzak aurreikusitakoen artean zein bilketa modalitate duen zehaztu gabe.

Laburbilduz, udal bakoitzerako bilketa modalitateari buruzko erabaki espezifikoaren ondorengo une baterako uzten da, eta ordenantzan ezarritakoaren arabera, hiriko ezaugarrien, ezaugarri demografikoen eta abarren arabera egingo da **“udalerrien artean koordinatuta”**. Hortaz, mankomunitateko organo eskudunek hartuko dituzte ezarri beharreko modalitate espezifikoari dagozkion erabakiak, udalerriz udalerriri edota zonaldez zonalde, udalek adierazitako borondatea kontuan izanik. Gure ustez, nahitaez hartu behar dira erabaki horiek udalerriri bakoitzak parte hartuta, behar duten hedadura ekonomikoa eta logistikoa dela-eta (materiala eskuratzea, kokapenak zehaztea, elementu osagarriak burutzea, etab.). Ebazpen horiek, seguru asko eta udalerrian ezarri eta ondorengo uneren batean, udaleko organo betearazleak (alkatetzak edota tokiko gobernu batzarrak) hartuak izango dira, gobernu eta administrazioa zuzentzeko duten eratzikipenen barnean, baita kudeaketa ekonomikoa ere, onetsitako aurrekontuaren arabera betiere. Alkateak nahiz tokiko gobernu batzak –azken horrek ahalmena eskuordetuta- ahalmen handiak dituzte zerbitzuak eta hornidurak kontratatzearen arloko erabakiak hartzeko.

Formalki, beraz, Zizurkilgo udalerrian ezarri beharreko gaikako bilketaren modalitate zehatza legezkoa dela esan liteke, aipaturiko balizko terminoetan, gaiari buruzko informazio zehatza izateko modurik ez dagoelako. Hala ere, zentzuzkoa izango zatekeen udalerrian ordenantzan aurreikusitakoen artean ezarri beharreko bilketaren modalitatea bezalako gai eztabaidatsurekin batera, prozedura espezifikoa abiaraztea, hartutako erabakien inguruko alegazioak edo gomendioak nahiz erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Azken finean, jarraituriko prozeduraren egokitasunari erreparatu gabe, hauxe ondoriozta dezakegu labur-labur: udalerriak atez ateko sistema ezartzeko gehiengoaren borondatea adierazi zuela mozioaren salbuespenezko bidetik, osoko bilkuraren irizpenpean jarri beharreko gaiak aztertu, informatu edo kontsultatzeko helburua duten organoek gaia jorratu gabe, hau da, informazio batzordeak. Dirudenez, herritarren partaidetzarako gutxieneko bidea ere ez da



ahalbidetu erabakia hartu baino lehen. Nolanahi ere, bosgarren atalean, beren beregi aztertuko dugu gaia

2. Erreklamaziogileek, bestalde, kexa agertu dute, ez zaielako erantzunik eman 300 lagunek baino gehiagok 2013ko ekainaren 5 eta 22 bitartean osoko bilkuraren erabakia eskatzeko aurkezturiko idazkiei. Erabaki horren bidez, hondakinak udalerrian atez ateko gaikako bilketa sistema ezartzea onetsi zen, baita sistema hori arautzen duen ordenantza ere.

Askotan adierazteko modua izan dugunez, administrazioak nahitaez eman behar du beren beregiko ebazpena prozedura guztietan eta interesatuei ebazpena jakinarazi (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua –HEAJAPE-).

Beren beregiko erantzunik ez dagoenean eskaera onartu ez dela ulertu behar da. Argudio horren aurrean, erakunde honek beti azpimarratu izan du administrazio-isiltasuna herritarren eskubidea dela, baina administrazioak ezin alega dezake eskubide hori aurkezturiko eskaerari buruzko ebazpenik ez emateko. Administrazio-isiltasuna argi eta garbi dago definituta HEAJAPEn, herritarrentzako berme gisa. Hala, hauxe ezarri da Legearen zioen atalean:

“El objetivo de la Ley no es dar carácter positivo a la inactividad de la Administración cuando los particulares se dirijan a ella. El carácter positivo de la inactividad de la Administración es la garantía que se establece cuando no se cumple el verdadero objetivo de la Ley, que es que los ciudadanos obtengan respuesta expresa de la Administración y, sobre todo, que la obtengan en el plazo establecido. El silencio administrativo, positivo o negativo, no debe ser un instituto jurídico normal, sino la garantía que impida que los derechos de los particulares se vacíen de contenido cuando su Administración no atiende eficazmente y con la celeridad debida las funciones para las que se ha organizado. Esta garantía, exponente de una Administración en la que debe primar la eficacia sobre el formalismo, sólo cederá cuando exista un interés general prevalente o, cuando realmente, el derecho cuyo reconocimiento se postula no exista.”

Hortaz, administrazioa jotzen duten pertsonak eskubidea dute eginiko eskaerari buruzko beren beregiko erantzuna jasotzeko kasu guztietan eta ezarritako epean, halako moldez non administrazio-isiltasuna –aldekoa edo kontrakoa- erabiltzeak berekin baitakar agindutako eginkizunak ez betetzea.

Administrazio-isiltasuna ez da administrazioen “eskubide” gisa bideratu behar, baizik eta administrazioak bere eginkizuna eraginkortasunaz bete ez duenean partikularrek duten bermea den aldetik. Erreklamaziogileek edo horien ordezkariak gure esku-hartzea eskatu dute kasu honetan; izan ere, eskubidea dute administrazioak aurkezturiko eskaerari buruzko ebazpena eman dezan,



epetik kanpora bada ere. Gainera, aukeran eta administrazio-isiltasuna dela bide, epaitegira jo dezakete beren eskubideak aintzatesteko, baina aukera hori ezin balia dezake administrazioak eskaera ez izapidetzeko.

Kasu honetan, erantzuna jasotzeko eskubideari buruz esandakoaz gain, interesatuek dokumentazio jakin bat eskatu zuten, eta udalak nahitaez eman behar zien bere eskura bazegoen, edo bestela ez emateko zioak beren beregi jakinarazi behar zien. Hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Artxiboetan eta erregistroetan sartzeko eskubidea dago araututa artikuluko horretan.

3. Fatxadetan esekigailuak eraginpeko jabeen baimenik gabe eta inolako prozedurarik jarraitu gabe jarri izanari buruzko alegazioari dagokionez, 300 pertsonak baino gehiagok aurkeztu zituzten erreklamazioak neurriaren kontra, eta ez dute erantzunik jaso.

Udalak ohar bat eseki zuen web orrian Plan Orokorraren Testu Bateginaren itzalpean jardun izan zuela adierazteko, baina udal jarduketa horri babes ematen zion artikulua edo testua aipatu gabe.

Esana dugunez, udalak ez digu gai horri buruzko informaziorik eman. Jasotako udal jakinarazpenaren ondoren izandako telefono elkarrizketetan jakinarazi zigitenez, Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina izapidetzen ari ziren, aipaturiko aurreikuspena zekarrena, baina ez da posible izan testua eskuratzea. Horren bidez, hauxe aztertu nahi da: ea hirigintza plangintzan ahalbidetzen den partikularrak fatxadetan esekigailuak jartzera behartzea haien baimenik izan gabe.

Nolanahi ere, baieztatu egin dugu testu bateginak oraindik ez duela jaso Gipuzkoako foru Aldundiaren adostasuna eta, beraz ez da argitaratu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; izan ere, aginduzko beharkizuna da hori indarrean sartzeko eta planteaturiko kasuan aplikatu ahal izateko.

Horrenbestez, une honetan udal jarduketak ez luke beharrezko lege ahalmenik izango euren borondatez baimenik eman nahi ez duten eraikinetako jabeen fatxadetan esekigailuak jartzera behartzeko eta, beraz, egoera hori konpontzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu. Edonola ere, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, zioak azalduta dituen erantzuna eman behar die udalak nahitaez neurriaren kontra beren beregi eta idatziz azaldu diren jabe guztiei.

4. Plataforma erreklamaziogileak eginiko beste alegazioari dagokionez, hots, atez ateko sistemari egokituriko zaborren gaineko ordenantzarik ez izateari dagokionez, Tolosaldeko Mankomunitateak zerbitzu horren ordenantza arau-emailea onetsi duela egiaztatu dugu. Ordenantza hori 2013ko abuztuaren 27an sartu zen indarrean, eta mankomunitateko udalek onetsi dituzten eta araudi



berriaren kontrakoak edo bateraezinak diren aurreko ordenantza, araudi eta lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak indargabetu ditu.

Horregatik, egun horretatik hasita, mankomunitateko udalerrri eremuaren barruko erabiltzaile guztiei aplikatu beharko zaie ordenantza arau-emailean araupeturiko hondakinak biltzeko gaikako sistema.

5. Azkenik, lege-eremuari eta kexan planteaturiko eta aurreko ataletan aztertutako gainerako gaietara dagokienez, azken gogoeta egitera garamatza eztabaida honek, herritarren partaidetzaren garrantziari eta herritarrek organo eskudunen erabakiak hartzean izan dezaketen eta izan behar duten partaidetzaren eraginari buruzkoa, hain zuzen ere herritarren demandei buruzko beste kexa batzuetan ere adierazi izan dugunez.

Herritarrek oro har udal araudia egiteko, aldatzeko eta berrikusteko prozeduretan parte hartzeko duten eskubidearen ardatza, betidanik, ordenantzetan eta hirigintza planetan alegazioak edota gomendioak aurkezteko posibilitatea izan da. Hala ere, garatuz joan dira baliabide juridiko berriak, gehienbat ingurumenaren arloan, eta herritarren sentsibilizazioak bultzada ekarri dute jendeak oro har erabakiak hartzen izan behar duen eginkizunean; eginkizun hori sakondu egin da. Arartekoaren abenduaren 28ko 12/2011 gomendio orokorrean, hots, "Demokrazia eta herritarrek parte hartzea. Bereziki, ingurumen prozesuetan parte hartzea" ¹delakoan, sakon aztertu dugu gaia, eta bertan adierazi dugunez, herritarren partaidetza tresna baliagarria da gatazkak kudeatzeko.

Parte hartzeko printzipio horrek isla berezia du ingurumenaren gaineko informazioa eskuratzeari, herritarrek erabakietan parte hartzeari eta justizia baliatzeari buruzko Aarhus-eko Hitzarmenean (1998ko ekainaren 25ean izenpetua, baina Espainiak 2004ko abenduaren 15ean berretsia). Hitzarmen horrek nabarmen indartu zuen herritarrek erabakiak hartzeko duten garrantzia, zeren eta Europa, estatu, autonomia eta toki mailako beste arau batzuk garatzea ekarri zuen. Hala dio hitzarmenaren hitzaurrean:

"Reconociendo que, en la esfera del medio ambiente, un mejor acceso a la información y una mayor participación del público en la toma de decisiones permiten tomar mejores decisiones y aplicarlas más eficazmente, contribuyen a sensibilizar al público respecto de los problemas medioambientales, le dan la posibilidad de expresar sus preocupaciones y ayudan a las autoridades públicas a tenerlas debidamente en cuenta,

Pretendiendo de esta manera favorecer el respeto del principio de la obligación de rendir cuentas y la transparencia del proceso de toma de decisiones y garantizar un mayor apoyo del público a las decisiones adoptadas sobre el medio ambiente,"

¹ www.ararteko.net



Hitzarmen honen atzean dagoen filosofia herritarren eginkizuna balioestea da, eta herritarren partaidetzak ezarri beharreko politika publiko ororen emaitzak bermatzeko dakarren aukera nabarmentzen da. Hondakinak toki mailan gaika biltzeari buruzko gaiak ezein proiektuk baino hobeto adierazten du ideia nagusi hori. Izan ere, proiektu gutxitan ikusi ahal izango dugu udalerriko auzokide guztien partaidetza zuzenagorik eta gogotsuagorik dakarren proiekturik, hain zuzen ere gaikako bilketako maila egokiak bermatzen aldera. Erabakiak zuzenean ukitzen ditu udalerriko pertsona guztiak, hondakinak sortzen dituztelako, eta horiek herritar guztiek parte hartzea lortzea da erronka, aurreikusitako sistema ezarritako helburuekin bat etorritik gauzatu dadin.

Hondakinei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ere beren beregi ezarri da informazioaren eta partaidetzaren printzipioa hondakinen kudeaketan, dela ezarri beharreko sistemari buruzko erabaki publikoetan, dela hondakinak sortzeko eta kudeatzeko egoerari buruzko txostenari dagokionez.

Parte hartzeko filosofia hori aplikatuz, Zizurkilen hondakinak biltzeko erabakitako gaikako sistemak sortu duen gatazka baloratzean, gogoeta egin beharko du Zizurkilgo Udalak: ea aukeratu den sistemak, bilketa sistema eraginkorragoa izanik ere, ez ote duen beste aurreiritzi asko ekarriko epe luzera, udalerriko herritarren zati bat ados ez dagoela edo argi eta garbi kontra dagoela kontuan izanik. Ezarri beharreko sistemari eta ondorengo garapenari buruzko erabakian, batera ebaluatu behar dira ekonomia, ingurumen eta gizarte alderdiak aintzat hartzeko eta balioesteko.

Une honetan, inolako zalantzarik gabe, honako hau azpimarra dezakegu: hondakinak gaika eman beharri buruzko kontzientzia piztu dute arlo honetan dagoen gatazkak eta herritarren mobilizazioak, eta hori lagungarria izango da hondakinak gaika biltzeko ahalik eta portzentajerik handiena lortzeko helburua betetzeko. Bestalde, argi esan behar dugu ezen, horri guztiari esker, gaikako bilketa sistemak ezartzeko modua ematen ari dela, metodo batzuk edo besteak uztartuta. Hori dela-eta, gatazka gainditzeko bidean egon gaitzke, eta, guztion ahaleginarekin, gaikako bilketaren eraginkortasun handiagoa lortu.

Ildo horretan, eta 2013ko maiatzaren 6an Legazpiko Udalari zuzendutako gure ebazpenean eta Bergarako Udalari martxoaren 7an helarazi dugun ebazpenik berrienean dagoeneko adierazi dugun bidetik, gure ustez adostasun bideak ireki beharko lituzke Zizurkilgo Udalak, etxeko hondakinak biltzeko ezarri beharreko gaikako sistemaren arazoaren inguruko herritarren mugimenduaren ahalmen guztia baliatzeko.

Ondorioz, gure jarduketa bukatutzat ematea erabaki dugu, eta ondorio hauek eman behar ditugu:





Ondorioak

1. Zizurkilgo Udalak, eskura dugun informazioaren arabera, ez luke lege ahalmenik izango baimenik ematen ez duten eraikinen jabeei fatxadetan esekigailuak jartzera behartzeko, zeren eta ez baitu ezarpen hori duen indarreko hirigintza plangintzarik edo bestelako araudirik.
2. Zizurkilgo Udalak zioak azalduta dituen erantzuna eman behar die beren beregi eta idatziz eraikinetako fatxadetan esekigailuak jartzeko neurriaren aurka zaldu diren jabe guztiei.
3. Zizurkilgo Udalak, hura partaide deneko Tolosaldeko Mankomunitatearen barruan, eskumena du hondakinak biltzeko egokien iritzitako gaikako sistema erabakitzeke hondakinen legeriak dakartzan iraunkortasun irizpideekin bat etorriz (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak).
4. Ezarritako helburuak bete ahal izateko, horiek gauzatu behar dituzten herritarren parte-hartzea behar da. Hondakinak gaika biltzeko edozein sistema ezartzeko edozein proiektuk arrakastarako berme handiagoa izango du baldin eta sistema burutu behar duten herritarren adostasuna biltzea lortzen bada. Ildo horretan, beraz, bidezkoa da Zizurkilgo Udalari proposatzea ahalik eta gizarte adostasunik handiena bultzatzea dezala, hondakinak biltzeko gaikako sistemaren ahalik eta mailarik handiena lortzeko herritarrek duten kezka bideratzeko.